



BIZI-BIZIRIK
Gozategi
Babel Musik

15 urte dira jada lehendabiziko lana kaleratu zutenetik eta seigarren diskoa plazaratu dute oriotarrek "Bizi-bizirik" izenburupean. Oraingoan, estudioz aldatu eta Bilboko Balea estudioan grabatu dute. Bertan, Asier Erzilla izan dute teknikari lanetan eta David Nancloares aldiz ekoizpen lanetan, Asier Gozategirekin batera.



EUSKAL HERRIKO LUR MAITEA
Batzuen artean
Elkar-Radio Euskadi

2008an argitaratutako "Gu Gira" bildumaren ildo beretik, gure oroimenean oinarrituko diren 40 kantuz osatutako disko bikoitza. Euskal kantagintzako zenbait talde edo kantariaren lanekin osatutako bilduma: Urretxindorrek, Benito Lertxundi, Estitxu, Mikel Laboa, Niko Etxart, Ruper Ordorika, Luis Mariano...



LOVIN' GAZTEA
Batzuen artean
Elkar-Gaztea

Azken 20 urteotako 20 balada, 20 maitasun kantu. Abesti horien artean, gaur egun euskal musikaren munduan dirén talde eta artista garrantzitsuenetako batzuek zenbait moldaketa berezi egin dituzte.



ZE ESATEK!
Ze esatek!
Baga Biga

Ska, reggaea, zingaroa eta rocka festa giroan. Taldearen musikak alaitasuna, bizipoza eta goraldi izugarria eragiten du, musikaren mugimendu bizkorrek kutsatu egiten dute berehala. Alaitasuna musika bihurtzen dute.



JON & SUGRAMAS
Jon & Sugramas
Gaztelupeko Hotsak

Arima Beltzako abeslari eta Uek taldeko bateriajole izandako Jon Gurrutxagaren proiektu berria dugu "Jon & Sugramas". Proiektu honetan rocka da nagusi, bluesaren eragina ere nabari da, baina batez ere 70eko hamarkadako rock taldeen eragin zuzena du.




LP-ak
Barricada, La Polla Records, Kortatu, Cicatriz,
Mikel Laboa, Ruper Ordorika.
Elkar

Elkar Musikak binilo bilduma berri bat aurkezten du. Lehen sei erreferentziak, belaunaldi oso baten banda sonoroa osatu zuten sei talde edo kantariaren lanak dira: Barricada, La Polla Records, Kortatu, Cicatriz, Mikel Laboa eta Ruper Ordorika. Biniloak 180 gramokoak dira.

iritzia

**HAIZEA
GARIZUMAKOIA**
Ruper Ordorika
Elkar



Gure herriaren barna, harat honarartetan, autoan lagun dut Ruper Ordorikaren azken diskoa: Haizea garizumakoa.

"zur'etxerat noa - mundu onuneerat, izenaren zenbakia zein, urrun bihotzeko lagun, iraganak utziz lagunartean bil, egun berriak argiz, olhabideko bordan urratsak aurrera, arto ihesiez aholkuz adiskideari, errekarri otoizka, zorianari agurka, gora ta bera gogoa, norat? bizitza maitatuz une oro, zuhaitz alferrari, eta Mikel Laboari sekulabelardiko kantari gu denon maisua"

Hauxe kantu berri uzta, bizitzari oinarri ta oihartzun, energia erakargarri ta sentikorrak. Egiaz betetako hotsez emankor; umiltasun ta zuhurtarsunez haiztzen dutenak. Hitzak zaizkit arratseez diren usainak bezala, goizberritzen ihintz argiz, eztiagarri ta bakezale, hurbilago jartzen nautenak. Musika haize zuhaitzen artean, hitzari idekitzen dion xenda. Honkitzen nauenak; bere botzaz xuxen zabaltzen du konfidentzatik Ruper-ek, barnetik erauzia, bihotz erdira emaiten dauku. Ohi duen bezala, bizi bidexka, ikertzen ta argitzen dauku ibilaldi hontan.

Maddi Oihenart
Kantaria



BETIBIZI

X. Amuriza-Leioa Kantika Korala-Kepa Junkera
Hiri Records

Xabier Amurizaren, Leioa Kantika Korala abesbatzaren eta Kepa Junkeraren gaitasunak elkartuta aurkezten da 12 abesti dituen lan berria, eta ezin hobeto uztartzen dira gure iragana, abesbatzen mundua eta musika elektronikoa.